

Noaia!!



Euskadi eta Portugal
arteko judo txapelketa

Milaka lagun errauste plantaren aurka



Sra. Alraldesa: "Lo que no quieras para ti,
no quieras para los demás"
**ERRAUSTEGIA
EZ ZUBIETAN...EZ INON**

**ERNAITIBAK DAUDE LA
AUSKETARIK
ZUBIETAN...EZ**

kinkildegia

**AZKENEKO
TXANPA
-%50
APROBETXA
EZAZU ORAIN**

SUJETADOREAK 15€

LIZARDI LIBRYDENDA



Liburuak, aldizkariak, musika,
opariak, eskola materiala,
enkuadernazioak eta fax zerbitzua

Etxebeste kalea, 1

Tlf: 943 36 11 15

**Berogailuetarako
gasoil zerbitzua
prezio onenean**



Alkartasuna
Nekazariltza
Kooperatiba
Eikartea

**etxez
etxeko
banaketa**

Eskaerak telefonoz 943 361 114 edo kooperatiba bertan

Alkartasuna

Herriko kooperatiba batzua • Kooperatibak 22 • Agiri kooperatiba 22 • 943 361 114

Txirrikitutik !!

Argazkian Mapil baserri aurreko aluneak ageri dira. Atzean berriz, itsasoan urpetik ateratako hondarra ontzietatik lehorrera eramateko hodiak, eta hondar hau jaso eta biltzeko lekuak. Jarduera hau, erriko beste asko bezala, bertan behera gelditu da. Argazkia, hala ere, ez da hain zaharra, 1971. urtekoa. Azken mendean Oria erriogan garatu den jarduera nagusia, Aginagan behintzat, angularena da. Horren testigantza isila dira ageri diren bi alak. Bertan orde dagoeneko ez da ageri, ez baherik, ez farolik, ezta fondorik ere. Baina diotenez, garai batean, ilargi berriko gau ilunetan, Txokoaldetik Orio bitartean ez omen zen argi faltarik izaten erriogan; ehundaka ala izaten omen zen kala eta kala, ea nork angula gehiago harrapatuko. Angula ilargi berriarekin abiatzen omen da erriogan gora. Marea gora eta ura, berriz, arrea atsegin omen ditu. Aurten aukerarik izango ote?

Zalao Arnaiz Ibarguren
zalao@usurbil.com



1971, Mapil, Aginaga

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Denberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.

Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkietza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

AUTOINKULPAZIO KANPAINA HASI DA **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

8.000 HERRITAR AZKEN MANIFESTAZIOAN **9. OR.**

IGANDEAN, ARTEA ANTZERKIA **10. OR.**

24 ORDUZ AUTODETERMINAZIOA **13. OR.**

KZGUNE, ABENDUAN GOIZEZ IREKITA **15. OR.**

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA **18. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JOSE PIÑAS

Ez gaude bakarrik

Ilunabarra da Saharako basamortuan. Zerua borobila dirudi eta bere ingurumari laranja-gorrixka azaltzen da. Lurreko zuhaitz gutxien itzalak luzeak dira, inon baina luzeagoak. Ahitzek eguneko berotasuna gordetzen dute.

Ilunabarra da Saharako basamortuan eta Guatemala, Mexiko, Angola, Kolonbia, Sahara, Suedia eta Euskal Herriko pertsonen osatutako taldea suaren inguruan bilduta dago. Saharar lagunak ohiturari eutsiz tea prestatzen dihardute.

Basamortuko eta suaren berotasunak hitzak entzun izan daitezela giro berezia sortu du. Eta hitzak sugarrak bezala, ikusten eta entzuten hasi dira.

Hasieran hitzek erretzen dute, testigantzak gogorrek kontatzen baituzte:

- "... hamar urte nituenean militarrek nire komunitateko 32 bizilagun etxetik nola aterarazten zituzten eta eskolako patioan tiro batez banan bana hiltzen zituztela ikusi nuen."

- "... haurrek zelaietan minak aurkitzen dituztenean etxe-

ra ekartzen dituzte jolasteko, orduan lehertzen dira eta jolasa zena paretan estalitako heriotza bihurtzen da."

- "... indigenok daukagun laku sakratura ezin dugu sartu gobernua enpresa bati saldu baitio."

- "... ofizialki arreba kotxe istripu baten ondorioz hil zen baina ejertzitoko kamioi batek gainerik pasata akatu zuen."

Istorio hauekin sua itzali beharrean indartu egin da eta orain behetik hazitako sugarrak altuagoak dira eta dantzan darabiltza. Gizarte zibilaren sufrimenduak, antolakuntzak eta borrokak sua elikatu dute eta txinpartak borroka hauen oihartzuna izanez, akelarrea osatzen dihoaz: ...sua ...herrien autonomia eta subiranotasuna ...desmilitarizazioa ...bake eskubidea ...lurra eta askatasuna ...kultura...elkarlana ...herrien elkartasuna ...aniztasuna eta elkarbizitza ...amalurra.

Gaua da. Esnatu naiz. Ilargia eta izarrek suari lekua hartu diote. Taldeari begira nago: isiltasuna nagusia izan arren ahotsak ez dira itzali, nahiz eta sua jada ez ikusi berpiztuta sentitzen da, nahiz eta taldekideak lotan egon ernai dira.

Egunsentia da Saharako basamortuan. Heriotzaren aurka eta bizitzaren aldeko borrokan ez gaude bakarrik.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Jakoba Errekondo - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas

Ika mika !!

Herritar guztiei, eskerrik asko

Urriaren 29an San Markoseko Mankomunitateak hondakinen sorrera murrizteko eta herritarren prebentzioaren aldeko kontzientzia indartzeko helburuekin, ekimen berri bat antolatu zuen: Bigarren eskuko mertatua.

Usurbilgo Udarregi ikastolako 4. DBH-ko ikasleok parte hartzea erabaki genuen. Oso ekimen interesgarria iruditu zitzaigun eta salmenta postu bat antolatzea erabaki genuen. Eta halaxe izan zen, merkaturaren parte hartzeko postu bat erreserbatu ondoren, antolaketa lanekin hasi ginen: gure etxeetako ganbaran zeuden ahaztutako gauzak ikastolara ekarri genituen, aldi berean, ikasleak taldeetan antolatuz, ideiak jasoz, objektuei prezioa jarritz eta txukun-txukun kaxetan sartuz. Antolaketa lanetan pasa genituen bi

astetako jolas-atsedenaldiak azoka eguna iritsi arte.

Igande hartan, goizeko 9:00etan gel-ditu ginen ikastolako sarreran. Ordurako udaltzaina prest zegoen guri laguntzeko. Bere autoa eskainiz, kaxa guztiak plazaratu zizkigun konturatzerako eta prest geunden guztiok lanean hasteko. Lerro hauek aprobeitatu nahi ditugu lagundu ziguten bi udaltzainei, Mikeli eta Itziarri, eskerrak emateko, oso lagungarriak izan baitziren.

Azokara herritar ugari azaldu zen eta konturatzerako, frontoia leporaino bete zen. Bigarren eskuko merkaturaren balorazioa positiboa izan zenez, Azaroaren 5ean, ERLE EGUNEan ere parte hartu genuen. Tarta bana, ikasle bakoitzaren ekarpena, nahiz eta ikasle batzuk gehiago ekarri zituzten. Segituan bete zen guri erreserbatutako

postua. Oraingoan ere salmenta oso positiboa izan zen. Goiza giro ederrean igaro zen eta esan beharra dago, 2. gozogintza lehiaketan parte hartu genuela eta bigarren sariarekin ikastolara joan ginela oso pozik eta alaitu.

Bukatzeko, lerro hauen bitartez, herritar guztiei eta ezagunei eskerrak ematea gustatuko litzaiguke, askotan bertakoak izan baitira solidarioenak bi ekitaldi hauetan. Dagoeneko diru kopuru bat bildua dugu ikas bidaiarako baina animoz eta gogoz gabiltzanez, Santo Tomaseko azokan ere parte hartzea erabaki dugu, bertan elkar ikusi dugulakoan agurtzen zaituztegu, laster arte.

Udarregi ikastolako
DBH 4ko ikasleak

Usurbilgo 18/98+ lan taldeak autoinkulpazio kanpaina jarri du abian

Azaroaren 11n autoinkulpazio kanpainari ekin zieten 18/98+ Lan taldeek. Auzipetuak daudenei elkartasuna adieraztea zen asmoa. Larunbat honetan, abenduak 2, horretarako aukera izango da herrian.

Autodeterminazioaren aldeko kanpaina eguna antolatu du Usurbilgo herritar talde batek. Larunbat honetan, abenduak 2, ospatuko da. Egun berean, Usurbilgo 18/98+ Lan Taldeko kideek autoinkulpazio mahaia ipiniko dute. Bertan sumario horretan auzipetuta daudenei elkar-

tasuna adierazteko sinadurak bilduko dituzte. Kamisetak ere salgai izango dira.

Kontzertu arrakastatsua

“Kontzertura joan ziren guztiek dakite, joan ez zirenek zer galdu zuten”. Usurbilgo 18/98+ Lan taldeak BEC-en azaroaren 11n ospatu zen makrokonzertuari buruz egin duten balorazioa dugu. Usurbildik 50 bat lagun hurbildu ziren. Muguruzak bildu zuen jende uholdea eta ezustekorik ere ez zen falta izan. Sorkun, Ruper Ordorika edota Bebe taula gainera igo zirenean, kasu. Giro ezin



BILBON EGIN ZEN AUTOINKULPAZIO
KANPAINAREN AURKEZPENA.

hobeak eta ezustekoek jaialdia uste baino gehiago luzatu zuten. Goizaldeko 2:30ak aldera arte.

Ika mika !

Zubietarrak baretzeko, ur lasterrak

Odon Elorza Donostiako alkatearen kirol proiektuen “pack” berria ikusi eta hara non aurkitu dugun Oriako erriberan, Zubieta parean, piragismoan aritzeko ur lasterren kanal bat eraiki nahi duela. Espekulazioari, errepideei eta laster AHTrI esker Urumea porlanaz zeharo bete ondoren, Oriaren txanda iritsi omen da, oraingotan kirolaren aitzakian, gainera. Zer demontre egingo zuten gaizki zubietarrek errauskailua, kartzela, kuartela, 2.000 etxebizitza eta, orain, ur lasterren kanala ere merezi izateko.

Ondo baino hobeto daki alkateak Orian ur lasterren kanala eraikitzeke eskumena ez dela Udalarrena, eta, hala

ere, lotsagabe jokutzen du. Baina ez da lotsagabea horregatik, edo ez horregatik bakarrik. Lotsagabea da, behingoz Oriari begira jarri den honetan, ez delako arazo larriren bat konpontzeko egin, ur lasterren kanala eraikitzeke baizik. Arazo larriren bat? Zein arazo, baina? Kutsadura, esaterako. Izan ere, Lasartek, Zubietak eta Usurbilek ur beltzak zuzen-zuzenean Oriara isurtzen jarraitzen dute. Europar araudiaren arabera, isurtze horiek orain dela sei bat urte depuradora bidean behar zuten. Ez daude depuradora bidean, ordea. Baina, esan bezala, Elorza ez da Oriari begira jarri arazo hori konpontzeko, ur lasterren kanala egiteko baizik.

Ur lasterren kanal batek ez dio inguruneari batere mesederik egiten. Ezin da ez nolanahi, ez edonon, Oxin-Biribilen – Irunen- gertatu zena ikusi baino ez da egin behar. Horrelako proiektu bat zuten, eta, azkenean, bertan behera geratu zen, hain zuzen ere, inguruneari kalte nabarmena egiten ziolako.

Dena-dela, horrela jarraituz gero, donostiarrak 1813ko hartan Zubietako baserri batean nola, hala bildu beharko dira laster batean zubietarrak Donostiako baserri batean (ordurako bakarren bat zutik geratzen bada, jakina).

Juan Mari Beldarrain, Eguzki taldea

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIE-TAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen

IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: abenduak 15. Idatzia ekartzeko azken eguna: abenduak 11.

**Datorren astean ez da
NOAUA! aldizkaririk banatuko**

Abenduko zubi luzea dela eta, datorren alea abenduaren 15ean jasoko duzue.

TXOKOALDE

IÑAKI LABAKA

Angulak



Urte sasoi honetan eguraldiari kasu handirik egiten ez diotenak anguleroak dira. Angula harrapatzeko epea ireki zenetik hor dabil makina bat lagun angula harrapatzeko ahaleginetan. Ez hotzak, ez haizeak eta ez euriak ez ditu etxeko ohean gerarazten. Urtero bezala baia eta farola hartu eta norbaitek kendu baino lehenago, goiz xamar txoko gustukoena hartzen dute.

Orain arte, entzundakoaren arabera, angula oso gutxi izan da, iaz baino askoz gutxiago, azken urtetan bezala galduta dira nonbait gure txokoko bideak aurkitu ezinik azaroaren 20an, ilargi berriarekin batera angula sartuko ote zen esperantza bazeukan jendeak baino ez zen horrela gertatu. Aldiz egun batzuk geroxeago euria erruz egin zuen eta ibaia hazia zihoan, ur karga dextentearekin. Baldintza horietan angula sartu zen eta harrapaketa onak egiteko aukerak egon ziren. Hala ere kilo gehienak Orioko Itxaso barra aldean bildu zituzten eta baporeen laguntzaz batez ere

Bestalde martxan da jadanik herriko elkarteen bederatzigarren mus txapelketa. Pasa den ostiralean partidak jokatu ziren Erroizpe elkartea ordezkatzeko bi bikote izendatzeko. Joxe eta Unai aita semeak alde batetik eta Mirotx eta Luis osaba iloba bestetik izan ziren irabazleak. Orain beste elkarteko partaideekin kanporaketak jokatu beharko dituzte azken txanpara iristeko eta abenduaren 16an gure auzoan Erroizpe elkartean jokatuko diren finalean txapela jasateko. Ea gure auzokideek irabazten duten!

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Leku aldaketak udaletxean



Aupa lagunok jada azken txanpan sarturik Agaude, urtea amaitze dago eta ospakizunak ugaritzen doaz, denok gaude urte amaierako jaia ospatzeko desioarekin, beno egia esan ni behintzat ez nago mentalizatua oraindik!!! Gainera honelako hego haizeekin gutxiago.....

Urte amaiera honetan udalean behintzat hainbat aldaketa ematera doaz, astelehen honetan bertan udaletxeko errejistroa lekuz aldatzera doa. Lehen udaletxeko sarrera nagusia zena orain ez da izango atzekaldean dagoen atea ordezkatzeko du. Urte hasieratik pentsatuta zegoen baina Sutegi berria ireki arte ez zen posible aldaketarekin hasia. Lehen liburutegia zaharra zegoen leku guztia jada prestatua dago leku aldaketa egiteko.

Udaletxe sarrerako ezker aldetik hasita honela geldituko da: behean pertsonalgoko departamentua, aldameneara udal idazkaria gorako igotzen hasita bilera gelatxo bat eta aldameneara beste gela bat sortuko den lanpostu berri batentzat, aldameneara udal errejistroa egongo da aurrerantzean. Beraz, udalera etortzen bazarete gogoratu atzealdeko sarreratik sartzea komeni dela berrikuntzak ikusteko.

Aldaketak daude beraz eta egun hauetan udalera etortzekotan bazarete pazientziakin hartu dena lotu bitartean.

Urte amaiera on on bat izan dezazuela opa dizuet eta ondo pasa jaiak. Hurrengo arte ondo izan.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Troiaiko aldapa



Badu zerbait berezia Troiaiko aldapa haundia. Txikia nintzanean erraldoi ikusten nuen, igotzea munduko gauzarik zailena izango balitz bezala. Izugarritzko nagikeria ematen zidan hura igotzen hasteak, baina goraino iristean, pozez betetzen nintzen. Urte batzuk beteta, ohitzen joaten zara, eta hain handi zena jada ez zaizu horren ezinezko iruditzen. Handia eta neketsua izan arren, maitasuna hartzera iritsi naiz orain. Izan ere, Usurbilera bizitzera heldu geroztik, aldapa horretan gorde baitira nire pentsamendu guztiak.

Urtaro bakoizten pentsamendu ezberdin, udazkenean ikastola hasita apur bat tristeago, kolorez beteriko zuhaitzez inguratutik. Neguan berriz kolore hotzez jantzirik, pentsamendua hotzegi agian pentsatu ahal izateko. Udaberrian kolore alaiekin jolasean, alaitasunez eta kurtsoa bukatzeko gogotsu, eta udan berriz, kolore berdez inguratutik, udako pozaz aseturik.

Eguneroko ekintza da niretzat Troiaiko aldapa igotzearena, beste askorena bezalaxe, eta beti konpainian dagoela ikusten dut: paseatzen dabilen jendez beterik, maldan goran, bizikletaz doazen txirrindulari ausartek igotzen dutelarik, e.a.

Batzuentzat ziurrenik, malda nekearen sinbolo izango da, baina niretzat bestelako zentzua du orain.

Troiaiko aldapa ezberdina da, mila kolore eta paisaia azaltzen ditu urteko eta egun ezberdinetan, eta koloreekin batera, bertatik pasatzean, pentsamendua aldatuz doa, poliki poliki.

ATXEGALDE

IONE EIZMENDI

Errausketa



Pasa den larunbatean, errausketaren kontrako protestan, jende mordo bildu zen Lasarte-Oriako kaleetan. Usurbildik ere traktore haundi bat prestatu zen, atzetik jendetzak jarraituz. Zubietara iritsitakoan, bazirudien auzo osoa han zegoela, egundoko jendetza. "Zubietari bizi, errausketarik ez, ez hemen eta ez inon" zioen pankartak. Eta denok Lasartera. Han elkartu ginen Urnietara, Hernani eta Lasartekoekin, jende ugari kaleak zeharkatuz. Sasotako plazara iritsitakoan, txalaparta, bertso, hitzaldi eta abarren bidez alternatiba gehiago badaudela adierazi zuten. Dantzarien saioarekin eman zitzaion amaiera ekitaldiari.

Ea errausketaren ordezkari alternatiba hobeak sortzen diren, jendeari garbi adieraziz ze aukera dauden. Geure aldetik ere, zabor gutxiago pilatzen saiatu beharko genuke. Bestela ere, badaukagu nahiko kutsadura gure inguruan, hasi errepideetatik eta zenbait fabriketara arte. Urrutira joan gabe, etxetik gertu dauzkagu ke beltzak, azido usaina, gasoil arrastoak eta abar.



Azken batean, gure osasunari kalte egiten dietelako.

SANTUENEA

AGUSTIN ESNAOLA

Pailazoak begibistan



Konturatzerako iritsi zaigu abendua eta modu berean bukatuko zaigu urtea. Abenduko zubi luze hau pasa eta hortxe dauzakagu ate joka Santo Tomasak, Gabonak eta Urte Zaharrak.

Garaia izaten da urtearen errepasoa egiteko eta aurrera begira ere egin nahiak eta ametsak martxan jartzeko. Guk ere gure auzoan errepaso bat egiten badugu bukatzen ari den urte honetan kontu batzuk izango genituzke kontatzeko baina ni batean geratuko naiz.

Gure auzoan Kultur Elkarte edo Auzo Elkarte berri bat daukagu. Bertan, auzoko nahiz herriko edozeinek du leku eta egia esan, auzoan aspaldi honetan faltan sumatzen genuen dinamika hartu du. Batetik, helduentzako hitzaldiak bestetik, dantza, yoga eta bestelako ikastaroak, gaztetxo eta umeentzako aisialdi ekitaldiak...

Askotan besteek zer eskaini zain izaten gara eta horrelako iniziatibak martxan ikusteak gogorarazten digu guk geronek egin edo antola genezakeela nahi duguna. Eta garrantzitsuena elkarrekin solasean aritzeko gune goxo bat egin genezakeela.

Dagoeneko iritsi zait etxera abenduko kultur agenda eta bertan ikus nezake Santo Tomas egunean ere badugula zer ikusia elkartean. Oraingoan Kiki, Koko eta Moko pailazoak ikusteko aukera izango dugu, abenduaren 21ean 18:00etan Santueneko ludotekan. Ea ba animatzen garen eta bertan ikusteko aukera dugun.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Denbora



Agur bero bat guztiei Andatzaren magal hone-tatik! Hementxe natorkizue betiko legez, gure inguru hauetan gertatzen diren gauzen eta gertaeren berri emateko prest. Oraingoan zer berri? Egia esan, ez da erraza suertatzen hemen gertatzen denaren berri ematea, izan ere, betiko moduan, lasai daude gauzak gurean. Eta oraingo aldi hau ere ez da

besteekin alderatuz gero ezberdina. Orain gutxi uda atzean utzi bagenuen ere, udazkena ere amaitzeaz dugu dagoeneko. Abendua ate joka dugu dagoeneko eta konturatzerako neguan murgilduta egoteaz gain, eguberri giroan murgilduta egongo gara gutxi barru. Urteak pasa ahala eta adinean aurrera joan ahala, egunek hegan egin ohi omen dute eta sarri ohartu gabe igarotzen omen da bizitza. Esan eta izan. Gaur egun daramagun bizitza estiloak, lehen aipatutakoan eragin handia eta zuzena duelakoan nago. Izan ere, errutinan murgilduta, egunak eta denbora bera ohartu gabe igarotzen zaizkigu. Beraz, etorkizuneko planak eta ametsak alde batera utzi eta iragana atzean utzita egunean eguneko bizitza zaila izaten da sarri. Egunean eguneko bizi behar da: iragana iragana da dagoeneko eta etorkizuna etortzeaz da!



AGINAGA

ANE MANZISIDOR

Auzo Elkarte

Hemen natorkizue, berriro ere, Aginaga aldeko berri emateko asmotan, nahiz eta, gauzak betiko martxan jarraitzen duten inguru honetan. Gaurkoan bizpahiru gai aipatu nahi nituzke.

Alde batetik, Auzo Elkarteari buruz aipamentxo bat egin nahi nuke. Esan behar, auzo elkarte hau abian jarri ahal izateko hainbat bilera burutuak direla dagoeneko. Honekin lortu nahi dena, herriari bizi pixkak emateaz gain, hemen aurki genituzkeen arazoei aurre egitea litzateke helburua. Honen inguruan azpimarratu nahi nuke, herritarren partehartzea. Izan ere, egindako bileran Aginagar asko elkartu bainkinen eta ia guztiak, lanerako edo laguntzeko gogo biziz. Aipatu behar gainera, adin guztietako jendea elkartu ginela eta nire iritzi apalean, honek osotasun bat emango dio elkarte honi.

Gaiaz aldatuz, aipatu behar, herritarra dugun Xabier Aranburu "Xomorro", aurtan 15 urte bete direla espetxean sartu zutenetik eta bere aldeko elkartasun egun bat egiteko asmoa abian dela dagoeneko. Elkartasun egun hori, abenduaren erdi aldera izango delarik. Emango dugu honen berri aurrerago gauzak zehazten goazen heinean.

Besterik gabe, agurtzen naiz.



ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Hau sasoia!

Ez dugu arrazoirik faltan amore emateko. Zubietarrok gutxi gara eta asko dira zubietar ez direnek Zubietan egin nahi dituzten astakeriak. Gure bizimoduan (eta osasunean!) eta etorkizunerako proiektuetan eragiteko ahalmena dutenak, izan, asko ez dira baina bai boteretsu eta aberats. Zergatik ez errazenera jo eta etsi? Etsi eta telebista aurrean txepeldu edo play-stationarekin totolotu edo futbolarekin ernegatu.

Baina agidanean zubietar asko ezin menean erori, ezin isilik eta egonean geratu. Erraustegi eta kartzelen kontrako taldeetan jardunez, kontzentrazio eta manifestaziotan parte hartuz, prentsaurrekoak emanez, herria oihal eta pankartekin jantzez, komunikabideetan gure aldarriei lekutxo eginez. Horiek buruhaustea, horiek, udaletako eta aldundiko handi-mandientzat! Hau sasoia gurea!

Eta ezinezkoa badirudi ere, beste hainbat arlotan ere lan egiteko adorea soberan omen dugu herrian: batzuk erreboteta bizi-bizi mantentzen, besteak gabon-kantak prestatzen (ostiralean 19:00etan lehen entsegua eskola txikian) eta gurasoak burubelarri eskola txikian 2007ko festa antolatzen (neguko arropa atera dute eta salgai egongo da ostegun eta ostiral arratsaldean, eskolan edo frontoian; bestela, jo lehenbailehen Nekane Zalduarengana). Bejondeigula!



UHL: "Lanak geratzea exigitzen dugu"

San Estebanera igotzeko bidearen magalean, aspaldidanik kamioiak aurrera eta atzera suma daitezke. Duela aste batzuk, alkate Luismari Ormaetxea gai honen inguruan mintzatu zen NOAUA!n. Zabortegia modu txukun batean itxi eta etorkizunean, leku hori natur gune ireki batean bilakatzea gauzatzeko material gehiago pilatu behar zela zioen. Era berean, Eusko Jaurlaritza proiektu horren jakitun zela eta neurri zuzentzaileak proposatu zituela zioen.

Usurbilgo Herri Lan plataformatik bestelakorik diote. Duela hilabete batzuk Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera jo zuten. Inongo onespentik gabe lanean dabiltzala salatzzen dute. "Baimenak lortu baino lehenago, betelanak egiten ari dira", adierazi du Arantxa Manterolak.

ARANTXA MANTEROLA

"Bertara botatzen ari diren produktuak kontrolatzea eskatzen dugu" adierazi du UHLko ordezkariak

Egoera aintzakotzat hartuta, espediente zigorgilea irekitzeko eskaerak bideratu dituzte eta baita, Hirigintza zinegotziarekin bildu ere. "Lanak geratzea exigitzen dugu", adierazi du Manterolak. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzan lanen inguruko dokumentazio osoa aurkeztea eskatzen



EUSKO JAURLARITZAKO EK LANEN INGURUKO DOKUMENTAZIO OSOA AURKEZTEA ESKATU DUTE.

dute. Bertan, egiten ari diren lanen inguruko hainbat xehetasunen berri eman beharra dute. Tartean, betelenerako bertan pilatzen ari diren materialen ezaugarriak jakinaraztea. Udalarri eta Ingemarri egun aipatutako gunera garraiatzen diren planoak eta dokumentazioa eskatu berri diete. "Bertara botatzen ari diren produktuak kontrolatzea eskatzen dugu", adierazi du UHLko ordezkariak.

Espezie babestua, arriskuan

Lanak bete beharreko hainbat baldintza betetzen ez dutela adierazi dute. Tartean, egiten ari diren lanek ingurumenari dakartzkien kalteak.

Inguru hura bizileku duten xaguzaharrak ez dira nonahi aurki daitezkeen animaliak. "Espezie babestua arriskuan jartzen da", gogoratu du UHLko ordezkariak.

Gai horren aurrean, Udalak izan duen jarrera gaitzesten du herri plataformak. "Udalaren jauntxokeria salatu nahi dugu, espediente zigortzailearik ez baitute ireki", adierazi du Manterolak. Lanek, artean, aurrera jarraitzen dute. Datozen egunetan, gai honen inguruan udal arduradunek duten iritzia bilduko dugu.

ARITZ GORRITI

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Patri Jatetxea



K/nagusia 14, ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

8.000 lagun bildu ziren errauste planten aurkako manifestazioan

Lasarte-Oriako udaltzaingoak emandako datua da. Baina Lakaso kopurua da gutxienekoa. Aurreko larunbatean egin zen manifestazioak argi utzi baitzuen errauste planten aurkako oihua nagusi dela gure inguruan.

“Alternatibak badaudelako”. Manifestazioaren deitzaileek hiri hondakinen arazoa konpontzeko beste bide batzuk badirela aldarrikatu zuten. Horregatik, gutxienekoa, kokalekuarena. “Ez Zubietan... ez inon”. Baina ez zen manifestazioan ikusi zen pankarta bakarra izan.

Lasarte-Oriako alkateak eta zinegotziek errauste planten aurkako koordinadorak deitutako manifestazioan hartu zuten parte. Hauen pankartaren mezua, ordea, bestelakoa zen: “Zubietan auzoan ez”. Ez zen oharkabea pasa. Segidan, beste pankarta bat zetorren, alkateari kargu hartuz: “Alkate anderea: zuretzat nahi ez duzuna, besteei ez opa. Erraustegia ez Zubietan ez inon”.

Usurbildik oinez

17:00etan puntuan hasi zen manifestazioa Lasarte-Orian. Baina Usurbilgoek eta Zubietakoek lehenago hasi zuten manifestaldia. Usurbildik arratsaldeko 16:00etan abiatu ziren Zubietara. Zubietan zain zeuden lagunekin bat egin eta 17:00etarako Lasarte-Orian ziren Usurbil, Zubietan, Urnieta eta Hernani



LASARTE-ORIAKO MANIFESTAZIOA OINEZ GERTURATU ZIREN

USURBIL ETA ZUBIETAKO HERRITAR ASKO.

MANIFESTAZIO JENDETSUA

“Lasarte-Oriako alkateak eta zinegotziek ere manifestazioan hartu zuten parte”

aldetik oinez abiatu ziren herritarrak. Baina manifestaziora errauste plantaren aurka osatu diren beste plataformetako ordezkariak ere gerturatu ziren: Astigarraga, Villabona, Zestoa, Donostia, Errenteria eta Lezokoak, besteak beste.

Talde, elkarte, alderdi politiko, sindikatu eta herritar askok ere bat egin zuten errauste plantaren aurka egin zen manifestazioarekin. Besteak beste, Zutik, Ezker Abertzalea, Aralar, ANV eta Ezker Batua alderdiek, ESK, LAB, CNT eta CCOO sindikatuak, Osina Talde Ekologista, Ekologistak Martxan, Eguzki eta Greenpeace talde ekologistek, La Esperanza, Zabaleta Auzolan eta Lasarte-Oria bizilagunen elkarteak eta Landaberri ikastolak.

IMANOL UBEDA

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Zendoia



Ezle Nagusia 3b - 943 37 40 71

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400



pintxoak
ogitartekoak
platea konbinatuak

TABERNA

Abenduaren 2an, kontzertu afaria Agerialden

Nafartarrak taldearen eskutik iritsiko da gure artera Poul Maher kantari irlandarra. Abenduaren 2an, Agerialden egingo den kontzertu afarian hartuko du parte.

Afaria 21:30ean hasiko da Agerialdeko jangelan. Afalostean hasiko da kantuan Poul Maher irlandarra. Kontzertu afarian parte hartzeko txartelak Txiribogan aurkituko dituzue salgai, 18 eurotan.

Kontzertu afaria

Noiz: Abendua 2, larunbata.

Non: Agerialden, gaueko 21:30ean.

Txartelak: 18 euro, Txiribogan salgai.



POUL MAHER IRLANDARRAK HARTUKO DU PARTE KONTZERTU AFARIAN.

Abenduaren 3an, euskararen egunean, Artea antzerki saioa Sutegin

Txalo Produkzioaren eskutik iritsiko da Artea antzezlanaren Sutegira. Hiru aktorek hartzen dute parte antzezlari honetan, hirurak ere sona handikoak: Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Ramon Agirre.

Artea hiru lagunen istorioa da: Sergio, Marcos eta Ivan. Komedia honetan koadro garesti bat da protagonista (koadroa zuri-zuria da). Artearen munduari buruzko istorio ederra dugu, baina baita itxurakeriari eta adiskidetasunari buruzkoa.

Aktoreen esanetan, erronka handia da lan hau taularatzea, "testua oso ona baita". Antzezlariaren mamia testuan bertan dago, idatzita dagoen moduegatik eta esaten duenagatik. Istorioren abiapuntua artearekin lotuta dago. Honen inguruko eztabaida zabalduta egiten da, eta betiko hiru lagunen arteko harreman pertsonaletan ere eragiten duelarik.



RAMON AGIRRE, JOSEBA APAOLAZA ETA ASIER HORMAZA DIRA ANTZEZLAN HONETAKO HIRU AKTOREAK.

Artea Yasmina Reza frantziar antzezlari eta idazle famatuaren lanaren euskarazko egokitzapena da, Txalok egina.

Euskal antzoki sarean ere ikusmin handia sortu du, eta, dagoeneko, 50 emanaldi lotu dituzte.

Artea antzezlan

Noiz: Abendua 3. Sutegin, 18:30ean.

Sarrera: Aldez aurretik, 8 euro, Oiardo kiroldegian. Takilan, 10 euro.

Zuberoako ikastolen aldeko otarrak salgai

Iparraldeko ikastolen egoera dela eta, beharrak asetzeko zeregin erraza ez denez, Aizoko Basaierako ikastola eta Soñutako Eperra



ikastolako gurasoek ondoko proposamen goxoa egiten digute hurbil ditugun Gabon eta Olentzero egunei begira. Zuberoako produktuak dituzten otarrak prestatu dituzte. Txirristan eta Txiribogan daude otarrak eskatzeko orriak.

Aukeran, bi otar ditugu eskura.

Irati otarra, 48 euro: ardi gazta, ezti, pate, ahalte gibelarekin, Bixkotx gailetak, Zuberoako patxarana.

Ahusqui otarra, 35 euro: ardi gazta, ezti, pate, ahalte gibelarekin, Bixkotx gailetak.

Andoni Sagarna euskaltzain oso izateko hautagai

Euskaltzaindiaren berriztatze prozesua aurrera doa. Uztailean sei euskaltzain oso emeritu izatera pasatzearen ondorioz, bi urteren buruan sei euskaltzain oso berri izendatuko dira.

Bilbon egin berri den osoko bilkuran, hautagai hauek proposatu zituzten euskaltzainek:

25. domina-hutsartea betetzeko, Xarles Videgain euskaltzain urgazlea proposatu dute Jean Haritschelhar, Piarres Xarriton eta Emile Larre euskaltzain osoek.

26. domina-hutsartea hornitzeko Andoni Sagarna Izagirre euskaltzain urgazle jauna proposatu dute Mikel Zalbide, Bernardo Atxaga eta Adolfo Arejita euskaltzain osoek.

Andoni Sagarna NOAUA!ko bazkide da eta Kultur Elkarte honetako lehen lehendakaria izan zen. Zorionak!

Ahotsak ekimena aurkeztu zen Sutegin

Ahotsak ekimen aurkezpenera herritar ugari hurbildu zen. Gemma Zabaleta (PSE-EE), Elixabete Piñol (EAJ) eta Nekane Alzelai (EA) Sutegiko auditorioan izan ziren azaroaren 23an. Jone Goirizelaiak (Batasuna) ez zuen etortzerik izan. Salome Portu eta Josune Urkia (EA), Lourdes Jauregiberri (EAJ) eta Arantxa Manterola (UHL) bertaratu zirenen artean zeuden.

Ideologia, tradizio eta sentimendu ezberdineko emakumeek adostu zuten agiriak edota Euskal Herriko gatazka politikoa konpontzeko emakumeak agente aktibo izateaz jardun zuten. Baita, gaintitu behar izan dituzten oztopoez ere.

"Banatzen gaituena alde batera utzi eta batzen gaituenetik abiatuta" duela lau urte hasitako ibilbidearen



EZKER ESKUIN, AHOTSAK-EKO KIDE NEKANE ALZELAI (EA), GEMMA ZABALETA (PSE) ETA ELIXABETE PIÑOL (EAJ).

emaitza da apirilaren 8an alor ezberdinetako emakumeek aurkeztu zuten agiria. Abenduaren 2an Bilboko Euskalduna Jauregian Ahotsak-en ekitaldira joateko gonbita ere luzatu zuten hizlariak.

ARITZ GORRITI

Gure Pakeako taberna kudeatzeko lehiaketa zabalik

Gure Pakea Zahar Egoitzako tabernaren kudeaketa lehiaketa bidez esleitzea erabaki da, 2006ko azaroaren 13an, 2006/1213 zenbakiko Alkatetzaren erabakiz. Urtebeteko kontratua izango da. Kontratazio Organoak hala erabakita, urtebetez luza liteke. Ekonomi eta Administrazio Baldintzen orrietako 10. artikuluan adierazitako agiriak aurkeztu behar dira. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argiratu eta gero, hamabost eguneko epea dago informazioa eta agiriak eskuratu eta udal erregistroan eskararak aurkezteko. Informazio gehiago udaletxean (943 371 951).

Hilerriko hilobi eta kolunbarioen eskubideen esleipena

Igaro den urriaren 31ko udalbatzan hilerri berriko hilobi eta kolunbarioen eskubideak gehienez 50 urterako esleitzea erabaki zen, herri jabetzako ondasunak izateagatik. Hilobi bakoitzaren erabilera pribatua 2.116 eurokoa izango da; kolunbario bakoitzarena, 712 eurokoa. Lehiaketa publiko bidez gauzatu da.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu ondoren, zortzi egunez baldintza orriak jendaurrean erakutsiko dira. Interesdunek 26 eguneko epea dute proposamenak aurkezteko. Informazio gehiago udaletxean, 943 371 951 telefono zenbakian.

Gabonetako kantu saioa prestatzeko entsegua Zubietan

Ostiral honetan, abenduak 1, gabonetako kantu saioa prestatzeko lehen entsegua egingo da Zubietako Eskola Txikian. 19:00etan hasiko da entsegua.

Olio bilduko duen ibilgailua ez da abenduan etorriko

Udaltzaingoak aditzera eman duenez, "Usurbilen San Markosekoek biltzen digu birziklatu nahi dugun olio zaharra. Bilketa hileroko lehen asteazkenetan egin ohi da. Asteazkena jai eguna tokatzen denean, hil horretan ez da zerbitzurik ematen.

Kasualitatez azaroko lehen asteazkena eta abendukoa jai egunak izan dira. Hau dela eta, hilerro laugarren larunbatean Urbilen zerbitzu hau eskaintzen dela adierazten dizuegu. Non: Urbil merkataritza-guneko aparkalekuan. Ordutegia: goizez, 11:00-13:00. Arratsalde, 15:00-19:30".

Odol emaileen bazkaria

Ohikoa den bezala, abenduaren 8an Usurbilgo Odol Emailen Elkartekoek urte bukaerako bazkaria egingo dute. Zendutako odol emaileak gogora ekarriko dituzte lehenbizi eta gero Patri Jatetxean bilduko dira. Bertaratu nahi duenak, elkarteko ordezkariarekin jar dadila harremanetan, ahalik eta azkarren:

Patri (615 760 458), Agustina (943 363 102), Kattalin (943 362 139), Maite (943 366 040).

Patri Jatetxean egingo den bazkariako txartelak 25 euro balio du.

Gertu dugu Santo Tomas eguna

Santo Tomas egunaren aurreko igandean ospatu ohi da Usurbilen. Aurten, abenduaren 17an egokitu da. Azken urteotan bezalaxe, NOAUA!k antolatuko du egun seinlatu hau. Baina, aurten, Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak ere antolaketa batzordean hartu du parte. Baina benetako protagonistak herritar sagardo egileak eta babarrun ekoizleak izango dira. Babarrun kiloa ekartzen duenari 12 euro ordainduko zaizkio. Sagardogileek 10 sagardo botila ekarri beharko dituzte, eta botila bakoitzak 1,5 eurotan ordainduko zaio. Lehiaketa ere egingo da eta sari politak banatuko dira. Hori bai, izena emateko epea abenduaren 14an amaituko da.



IAZ, 28 BABARRUN EKOIZLE AURKEZTU ZIREN SANTO TOMAS EGUNEKO LEHIAKETARA.

Sagardo eta babarrun lehiaketak egingo dira

Babarrun lehiaketa

Parte hartzaile bakoitzak 1kg babarrun aurkeztu beharko du. Kg bakoitzeko 12 euro ordainduko zaizkio.

Babarruna epaitzerakoan, ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **Itxura:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **Kolorea:** zenbat eta beltzagoa (more ilun ia beltza) izan orduan eta hobeagoa.
- **Berdintasuna:** tamainaz, kolorez... elkarren berdinak izatea.
- **Dizdira:** beste babarrun beltzetatik bereizten duen berezko dizdira izatea. Berezko dizdira hau beste edozein produktorekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada, lehiaketatik kanpo geratuko da partehartzailea.
- **Garbitasuna:** babarruna ez den bestelako partikula arrotzik ez izatea.

Sariak:

Lehen saria: 120 euro + trofeoa.

Bigarren saria: 60eur o.

Hirugarren saria: 40 euro.

Sagardo lehiaketa

Sagardotegiek ez dute lehiaketa honetan partehartuko.

Sagardoa etxean egiten duenak herriko plazara ekar dezake herritarrek proba dezaten. Nahi duenak, egunean bertan egingo den lehiaketan parte har dezake. Partaide bakoitzak (lehiaketan parte hartzen duenak eta ez duenak ere bai) 10 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5 euro ordainduko zaio.

Sariak:

Lehen saria: 120 euro + txapela.

Bigarren saria: 60eur o.

Hirugarren saria: 40 euro.



Izen-ematea

Izen emateko azken eguna, abenduaren 14a izango da.

Baldintzak eta gainontzeko zalan-tzak argitzeko deitu NOAUA!ko bulegora (943 360 321).

- Izen ematearekin batera, lehiaketan parte hartuko duten babarrun eta sagardo botilak NOAUA!ko egoitzara ekarri beharko dira.

Antolatzailea: NOAUA!. Laguntzailea: Sagardo Egunaren Lagunak. Babeslea: Usurbilgo Udala.

Larunbat honetan, autodeterminazioaren aldeko jai eguna

Antolatzaileen esanetan, “autodeterminazioaren inguruan indarrak metatzea”. Hori da larunbat honetan, abenduak 2, Usurbilgo kaleetan islatuko dena. Herritar talde batek “Euskal Herriak autodeterminazioa” kanpainaren barne antolatu duen ekitaldi sortaren xedea izango da. Kirola, gastronomia eta musika uztartu dituzte.

Egitarau zabala eta irekia prestatu dute antolatzaileek. Adin, zaletasun eta oro har, herritar guztiei zuzendutako ekitaldi sorta. “Egoera larri batean gaude. Prozesuak zeri erantzun behar dion zehaztu nahian dabilta. Gure ustez, behingoz konpontzeko autodeterminazioa eta lurraldetasunari irtenbidea eman behar diete”, adierazi dute antolatzaileek.

Horren haritik, antolatzen ari dira “Euskal Herriak autodeterminazioa” kanpaina.

Murala Dema plazan

“Egun horretan jendea kalean egotea nahi genuen”, adierazi dute antolatzaileek. Eta kalera irteteko aitzakia ugari izango da. Dema plazan Autodeterminazio hitza idatzia izango duen mural handi batean hurrek nahi dutena margotzeko aukera izango dute. Zikintzeko arriskurik ez dute izango. “Zabor poltsak emango zaizkie”, ohartarazi dute antolatzaileek. Murala margoz josi ostean, elizako horman esekiko da.

Artean, herriko elkarteetako ordezkariak su artean lanean gogor arituko dira. Denek jaki bera prestatu beharko dute; marmitakoa. Horrelakoetan, epaimaharrik zorrotzenak jaleak direnez, goizean zehar prestatutakoa bazkaritara hurbiltzen direnek dastatu ahal izango dute.

Kirolari beteranoak lehiatzen

“Herritarrek izan behar dute aldaketaren protagonistak”, adierazi dute

antolatzaileek. Abenduaren 2an hori argi islatuko da. Aspaldi kirol lehiak ikusi ez ditugun herritarrek norgehiagokan ikusiko ditugu. “Entrenatzen ari omen dira”, gogoratu dute antolatzaileek. Hain zuzen, garai batean eskubaloian oso fin aritu ziren jokalariek neurketa paregabea eskainiko dute. Baina kirol saioak herritar gehiago bilduko ditu pilotalekuan. Auzoen arteko futbito txapelketa izango baita. “Auzo batzuetan koadrila oso bat, besteetan, koadrila ezberdinetako jendea”, antolatzaileen esanetan. Ekitaldietan parte hartuko dutenek kamiseta bera izango dute soinean; “Autodeterminazio” hitza daramatenak.

Musika emanaldi ibiltaria

Bolo, toka eta mus txapelketek eta gaztain eta sagardo banaketak eguneko egitaraua osatuko dute. Afalostekoa, kontzertu ibiltariak. Musika saioak gune finko batean ikustera ohituta gaude. Ez da egunerokoa, kontzertu ibiltariez gozatzeko aukera izatea. Hain zuzen, arratsaldeko kirol emanaldiek kontzertua gauerako pilotalekuan egitea



AUTODETERMINAZIOAREN ALDEKO
KANPAINA HERRI ASKOTAN
GARATZEN ARI DA.

ezinezko bihurtzen zuten. Eguraldi txarra egiteko arriskuagatik, antolatzaileek ekitaldia frontoi atzean egiteko aukera ere baztertu zuten. Azkenean, herriko gune batzuk aukeratu eta horietan emanaldiak eskaintzea erabaki zuten. Batetik bestera mugitzeko arazorik ez dute izango. “Kamioi bidez lekuz aldatuko da”, iragarri dute antolatzaileek. Modu horretan, Artzabalen, Bordatxo aurreko errotondan edota Txiriboga parean emanaldiak izango dira.

ARITZ GORRITI

24 orduz Autodeterminazioa

11:00 Haurrentzako mural pintaketa Dema Plazan.

-Elkarteen arteko lehiaketa gastronomikoa frontoian edo Askatasuna plazan. Marmitakoa prestatuko dute.

-Kalea girotzea, dultzaina eta trikitixarekin.

12:00 Toka eta bolo txapelketa Askatasuna plazan.

13:30-14:00 Bazkari informala: lehiaketa gastronomikoan prestatu den marmitakoa eskainiko da.

15:30 Mus txapelketa.

16:30-18:30 Auzoen arteko futbito txapelketa. Parte hartzaileak: Aginaga, Txokoalde, Santuenea, Atxegalde, Kalezahar eta Kaleberri.

18:30-19:30 Beteranoen arteko eskubaloia partida frontoian.

19:30-21:00 Futbito txapelketaren jarraipena.

20:00 Gaztain eta sagardo banaketa.

23:00 Musika ibiltaria. Herriko puntu desberdinetan kontzertu txoak.

KzGunea errames

Osakidetzako oposizioak direla eta, jende ugari dabil herriko Internet gunean

Datorren astean askotxok zubi luzeaz gozatuko dute. Baina milaka herri-tarrek ez, Osakidetzako oposaketak baitituzte. Horregatik, nabaria da KzGuneetan dabilen jende mugimendua. Froga horiei begira, bertan eskura daitekeen ziurtagiria ateratzea lagungarria edota premiazkoa izaten da. Urnietan eta Usurbilgo KzGuneako arduraduna den Karlos Alvarezek esan digunez, "askotan gure aretoa lepo bete da".

NOAUA! Ziurtagiria lortu nahi dutenei begira, Osakidetzako oposizioek eragina al dute?

Karlos Alvarez. Oposaketak direla asko nabaritu da. Meritu edota betekizun bezala ziurtagiria izatea eskatzen baitute. Oinarrizko ikastaroak direnean, 0,25 puntu eskura daitezke; sakonagoak direnean, aldiz, 0,5 puntu. Hasieran "boom" bat izan zen. Sindikatuetatik jakinarazita datoz asko, oposizioetako oinarriak kaleratu baino lehen.

KARLOS ALVAREZ, KzGunea

"IT txartela lortu nahi duenak, gutxienez, azterketa eguna baino lau egun lehenago eman behar du izena"

Askotan lepo bete da, eta azterketa egin nahi zutenak inguruko herrieta-

ra ere bideratu ezinik ibili izan gara. Baina ziurtagiria ateratzeko aukera asko daudenez, beste egunen batean tartea aurkitzen da.

N. Abenduan ziurtagiria eskuratu nahi duenari zer gomendatuko zenioke?


K. A. Ziurtagiria izan nahi duenak, azterketa unea baino gutxienez lau egun lehenago izena eman behar du. Azterketa norberak bere kontutik prestatu behar du; KzGunea prestakuntza hori ez du eskaintzen. Froga gaitzitzeko sei aukera daude eta bi berrikusketa saio. Galdera asko azterketa batetik bestera errepikatzen direnez, akatsak zuzentzeko egindakoa berrikustea aholkatuko nuke. Alde horretatik, gida baimeneko teoria azterketa egitea bezalakoa da.

N. Oinarrizko ikastaroa antolatzaren denean zein da interesatu posiblea?

K. A. Denetarik izaten da, baina oro har, egunean zehar, ordutegiaren arabera aldatzen doa. Goizetan, adinean aurrera doazen emakumezko eta jubilatuak hurbiltzen dira. Arratsaldetan, aldiz, gazteak. Tartean, enpleguari buruzko kontsultak egitera datozenak. Ordu horietan, erabiltzaileen profila goizetan baino anitzagoa da.

N. Gutxi asko, zein da Usurbilgo erabiltzaile kopurua?

K. A. Batz bestea, eguneko hogei



KARLOS ALVAREZ, KzGUNEKO TUTOREA.

edota hogeita bost erabiltzaile etortzen dira. Askok dira bere kabuz nabigatzera datozenak. Ikastaro laguntzaileetan ere batek baino gehiagok izena ematen du. Mintegietan, aldiz, jende falta izaten da. Batzuetan, taldea osatzeko aukerarik ez da izaten.

ARITZ GORRITI _____

Abenduan, KzGunea goizez

Abenduan goizez irekita, 9:00etatik 13:00era. Kale Nagusia, 37. Telefonoa: 943 36 14 12.

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

ANTXETA
taberna-jatetxea

agitaratekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

Euskadi-Portugal judo topaketa Oiardon

Oiardo kiroldegiko pistan ezohiko ikuskizunaz gozatze-ko aukera izango da abenduaren 2an arratsaldeko 18.30etik aurrera. Tatami gainean Euskadi eta Portugalgo judoka onenen arteko 13 norgehiagoka ikusteaz gain, argi eta ikus-entzunezko saio bikaina antolatuta dutela iragarri du Esteban Arrillaga Usurbil Judo Taldeko ordezkariak. Estatu mailan judon inoiz egin ez den muntaia egitera doaz larunbatean.

Euskadiko eta Portugalgo senior mailako judo selekzioak izango dira aurrez aurre larunbat arratsaldean Oiardon. Eusko Jaurlaritzak bultzatuta iaz sortu zen Euskadi nazioarteko beste selekzioaren baten aurka lehiatzeko ekimena, eta orduan ere Portugal izan zuten aurrez aurre Oleretan. Euskadiko taldean zeuden judoka gehienak Usurbil Judo Taldekoak zirela ikusita, aurtan ekimen hau herrira ekarri dute.

Hala ere, aurtengo topaketak iazkoarekin zerikusirik ez duela izango ziurtatu digu Esteban Arrillagak. "Ikuskizuna hobetzeko ahalegin handia egin dugu aurtan. Duela gutxi Andoainen izan zen boxeo ekitaldiaren antzeko eszenaratzea izango du larunbateko saioak. 20.000 watioko argiztapena, pantaila erraldoia, ikus-entzunezko profesionalak lanean... judoken saioaz gain ikuskizun paregabea ikusteko aukera izango dute Oiardora gerturatzen diren guztiek".

Euskadi nahiz estatu mailan judon honelako ikuskizun bat egiten den lehen aldia da. "Ez da ohiko txapelketen antzekoa izango -dio Estebanek- inguru honetan oraindik ikusi ez den zer bait antolatuta dugu. Nazioarte mailako txapelketetan Oiana Blancorekin joan naizenetan ikusitako ikuskizunaren antzekoa Usurbila ekartzen saiatu gara". Bi orduko iraupena izango du topaketa honek. Aurrez aurre ongi gertorria izango da lehendabizi, bi taldeen ereserkiak ere entzungo dira ondoren eta judoaren inguruko bideo emanaldia ere bai. Hala ere, ikuskizuneko protagonista nagusiak judokak bihurtuko dira. Argiztapen ikusgarriaz lagunduta tatami bakarrean 13 norgehiagoka ikusi ahal izango dira.

Euskadiko judoka onenak Oiardo



kiroldegian izatea zen antolatzaileen asmoa. Azken urte hauetan mundu mailan lehiari dabilen Portugaletako Kiyoshi eta Kenji Uematsu anaiak ekarri nahi zituzten Usurbila, baina Japoniatik ostiralean iritsiko dira eta denbora arazoak tarteko azkenean ez dira bertan izango. Hala ere, Esteban Arrillagaren esanetan talde indartsua osatu dute. "Mutiletan, maila desberdinetan Espainiako txapel-dun izan dira gehienak eta nesketan, berriz, gure ordezkariak onenekin arituko gara. Oiana Blanco eta Yahaira Aguirre, adibidez, Munduko txapelketa desberdinetan parte hartzen ari dira".

Herriko judokak Euskadirekin

Euskadiko selekzioan Usurbilgo Judo Taldeko kirolariak izango dira nagusi. Mutiletan, Andoni Aizpurua (-60 Kg.), Ibai Peña (-66 Kg.), Aitzol Arrospide (-73), Egoitz Mora (-90 Kg.), Iker Lizarribar (-100 Kg.) eta Mikel Ponga (+100 Kg.) izango dira herriko ordezkariak eta - 83 kilotik behera arituko den Jesus Manuel Pardorekin batera Euskadiko mutilen taldea osatuko dute larunbatean.

Neskei dagokionez, sei judoketatik bi izango dira herriko judo taldeko kideak: pasa den asteburuan Egiptoko El Cairen jokatu zen Mundu mailako txapelketa batean lehen postua eskuratu zuen Oiana Blanco (-48 Kg.) eta Maria Jose Sardon (+70 Kg.) hain zuzen ere. Hauekin batera arituko dira Cristina Garcia (-52 Kg.), Angelica Herrero (57 Kg.), Yahaira Aguirre (-63 Kg.) eta

Ainhua Toro (-70 Kg.).

Aurrez aurre izango duten Portugalgo taldeari dagokionez, maila oneko aurkaria dela dio Estebanek. "Emakumezkoetan, duela gutxi jokatu den 23 urtez azpiko Europako txapelketan bi urrezko domina lortu dituzte eta Europako talde onenetakoa dute. Gizonezkoetan ere ondo dabilta, mundu mailan bi domina lortutakoak baitira".

Arratsaldeko 18.30etik aurrera, beraz, judo ikuskizun paregabea ikusteko aukera izango dute Oiardon bertara gerturatzen diren guztiek. Sarrera, gainera, doakoa izango da Eusko Jaurlaritza, Usurbilgo udala, Euskadiko Judo Federazioa, Usurbil Judo Taldea eta Kirol Patronatuak antolatutako Euskadi eta Portugalen arteko judo topaketa honetan.

JOSU ARANBERRI

Futbol partidak Harane futbol zelaian

Asteburu honetan Usurbil Futbol Taldeko Emakumezkoen ligako taldearen partida ikusteko aukera izango da Harane futbol zelaian. Arratsaldeko 15.30ean hasita Urnieta taldea izango dute aurrez aurre herriko neskek. Bestalde, abenduaren 6an, asteazkenean, bi norgehiagoka jokatu dira bertan. Goizean Zestoaren aurka jokatu du 1. Jubenil mailako taldeak eta arratsaldeko 15.30ean 1. Errejonial mailako taldeak Pedrusko taldearekin neurtuko ditu indarrak.

Agenda !

Azaroak 29, asteazkena

- "Elikadura ekologikoa 0-3 adin tarteko haurretan", Sutegin arratsaldeko 18:30ean. Antolatzailea: Oinarriak erakiz, Haur Eskolako guraso elkarte. Hitzaldia gazteleraz, sarrera doan.

Abenduak 1, ostirala

- Gabonetako kantu saioa prestatzeko entsegua Zubietako Eskola Txikian, 19:00etan.

Abenduak 2, larunbata

- Autodeterminazio eguna. Xehe-rasun gehiago, 13. orrialdean.
- Euskadi-Portugal judo txapelketa Oiardo kiroldegian. 18:30ean.
- Kontzertu-afaria Paul Maher irlandarrarekin. Agerialden, 21:30ean. Txartela, 18 euro, Txiribogan salgai.

Abenduak 3, igandea

- Artea antzezlan 18:30ean Sutegin. Sarrera, 8 euro aldeztatik Oiardon. Takilan, 10 euro.

Abenduak 8, ostirala

- Odol emaileen bazkaria Patri jatetxean.

Abenduak 11, astelehena

- Jose Ramon Agirre Marronen eskutik, Zelanda Berriari buruzko ikusentzunezkoa. 20:00etan Sutegin.

Abenduak 13/ 14

- Orientazio ikastaroa. 19:30etik 21:30era Sutegin.

Abenduak 15

- Pello Añorga ipuin kontalaria, 18:00etan Sutegiko Haur Liburutegian.
- Diapositiba emanaldia, 20:00etan Sutegiko auditorioan.

Egin kontu

Abenduaren 11n hasiko da Mendi Astea

Andatza Mendi Elkarreak Mendi Aste berri bat antolatu du. Jose Ramon Agirre Marron-en "Zelanda Berria, naturaren hitzak" filmak emango dio hasiera, abenduaren 11n, 20:00etan, Sutegiko auditorioan. Ikusleek Zeelanda Berriko natura eta paisaien indarra irudietan ikusteko aukera izango dute.

Zelanda Berriko ikusentzunezkoa abenduaren 11n astelehenez ikus ahal izango dugu. Ekitaldi gehiago ere antolatu ditu Andatzak. Orientazio ikastaroa, esate baterako. Sutegin bertan egingo da ikasta-



roa, bi egunetan, abenduaren 13an eta 14n, 19:30etik 21:30era. Ikasitakoa praktikak jartzeko aukera izango da abenduaren 16an egingo den irteeran.

Abenduaren 17an egingo den umeentzako ibilaldi neurtu batekin amaituko da Mendi Astea.

Ruper Ordorikak disko berriena aurkeztuko du Sutegiko auditorioan

Ruper Ordorikak oraintsu plazaratu du disko berriena, "Memoriaren mapan" izeneko diskoa. Argitalpen berezia da. Hitzak, Joseba Sarrionandiarenak dira guztiak. Doinuak, ordea, Ruper Ordorikarenak. Kantu guztiak, berri-berriak.

Bata bestearen atzetik, uneak, tokiak, maitasunak, galderak,

minak agertzen zaizkigu disko berriko kantuetan.

Abenduaren 30ean, zuzenean entzun ahal izango ditugu disko berriko kantuek, Ruper Ordorika Sutegiko auditoriora hurbilduko baita.



Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



ETXEBIZITZA

- Usurbilen pisu bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Trastero bat alokairuan hartuko nuke Usurbil edo auzoetan. 687 706 081.
- Garaje itxi bat alokatuko nuke Usurbilen. 664774024.
- Galtzaragaña 5 zenbakian garaje bat dauka salgai. 943 361 219.
- Zubiaurrenea 2 zenbakian berrituta dagoen lokal bat alokatzen da. 658758237.
- 80.000m2ko lursaila salgai. Ura eta bertarainoko bidearekin. 664774024.
- Garaje itxita salgai, 18 m2. Merkea. Puntapax bidean. 610 29 18 64 (Carlos).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun ososko disponibilitatea. 679742413.
- Bi emakume eskaintzen dira goizez bi orduz lan egiteko. 659879040 / 943 365 737.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da, orduka zein egun osoz. 610 669 335.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Magisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrek ematen. 635209193.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanean. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein mota-tako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 36 27 13.
- Arratsaldez etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Azaroak 19an Kale Nagusian, Arratoi Txakur marroi ilun bat aurkitu da. Galdu duenak deitu 659883912 telefonora.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- Citroen Sahara 2000 HDI VTS Cupe bat daukagu salgai. Oso ondo zaindua eta beti garajejan egondakoa. Extra asko ditu. 667272889
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637760852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak dauzkat salgai. 664774024
- Tximenearako egurra salgai. Akazia, pinua eta pagoa. 664774024.
- Bertako babarrun beltza eta baserriko oilas-koak saltzen ditut modu onean. Interesatuak deitu: 664774024.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna kondizio onetan daukagu salgai. 676453176.
- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. 679185102
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. Emaizta profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

Eguneko goardiako farmaziak

Azaroak 30, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 1, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 2, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 3, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 4, astelehena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 5, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abenduak 6, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 7, osteguna
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 8, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abenduak 9, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abenduak 10, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abenduak 11, astelehena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 12, asteartea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abenduak 13, asteazkena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abenduak 14, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 15, ostirala
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 16, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 17, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Txerrimunik ordainetan

Bihotz bihotzetik opa dizut egun zoriontsua pasa dezazula eta egun honetako magiak zure ametsa bete ditzala. Nik muxu goxo bat eta zorionak bidaltzen dizkizut. Aitaxo.



JAIOTAKOAK

- Lur Etxeberria Camino azaroaren 19an.

Datorren alea abenduaren 15ean

Ohar eta zorion-agurretarako azken eguna: abenduak 11.

**Zuen
publizitatea
hemen**

943 360 321
publizitatea@noaua.com

I l t s r t z

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

**JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose enea. 6 Kalejar
Telf: 606 37 21 05

**BORDATXO
edaritegia**

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Euskarazko produktuen katalogo berria, eskuragarri

EGUBERRIAK gain gainean ditugu. Ohi beza-la, Durangoko Liburu eta Disko Azoka ere ate joka dugu. Urteko euskal kultur ekoizpenaren zati handi bat garai honetarako prestatzen da. Beraz, zer nolako opariak erosi pentsatzen has-teko unea iritsi da. Eskaintza zabala da, baita

euskarazko produktuen artean ere. Diskoak, liburuak, jokoak... 0-16 urte arteko haur eta gazteei zer erosi ez dakienarentzat Buruntzaldeak herritarren eskura jarriko du "Euskarazko produktuen katalogoa". Aisialdia euskaraz bizi baitaiteke.

Askotan, ordea, gure hizkun-tzan izaten den kultur ekoiz-pena bere osotasunean ez da ezagutzen. Horregatik, beste behin ere, Buruntzaldeak 0-16 urte arteko ei zuzendutako euskarazko produktuen katalogoa kaleratu du. Musika, filmak, aldizkariak, liburuak, informatika pro-dukutuak, jostailuak eta jokoak. Produktu anitz iragartzen dira. Aukeraketa zorrotza egin dute argitale-txeek eta erakundeek. Adina eta pro-dukutuak hezigarriak izatea kontuan izan dute.

Opariak erosteko gida

Eskola eremutik at, aisialdiko hainbat ekintza euskaraz egin daitezkeela eta hori ahalbidetzeko euskarazko pro-dukutuak merkaturatzen direla oharta-raztea da helburua. Horretarako, Buruntzaldean guztira etxex etxe 8.195 katalogo banatuko dira.

EUSKARAZKO KATALOGOA

"Aisialdiko hainbat ekintza euskaraz egin daitezkeela ohartaraztea da katalogoaren helburu nagusia"

Argitalpenean eskaintzen diren hainbat produktu aurkitu daitezke liburu dendetan. Etxez etxeko banaketa hori egin izana nabaritu du Beatriz Azaldegik. Usurbilgo Lizardi liburu dendako langileak duela bizpahiru urte izan zuen katalogo honen berri. Paperean ageri diren produktu asko bere liburu dendan aurki daitezke. "Gida didaktikoa eta oso erabilgarria da", adierazi du Azaldegik.

Opariak erosteak hainbeste



MUSIKA, FILMAK, LIBURUAK, INFORMATIKA PRODUKTUAK, JOSTAILUAK... EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO KATALOGO BERRIA PREST DAGO.

buruhauste eragitea hain ohikoa den aste hauetan, Buruntzaldeko katalogo-ak horiei irtenbidea aurkitu nahi die. Horregatik, "Euskarazko produktuen katalogoak" batek baino gehiagori zalantzak uxatzen dizkie. Guraso askok opariak erosterakoan, argibide ugari aurkitzen dituzte aipatutako argitalpe-nean. "Batzuk katalogoa eskutan, pro-dukutu zehatz bat erostera datoz", adie-razi du Azaldegik.

Herrian euskarazko produktu ugari saltzen dira; adin tarte batzuetan, ordea, besteetan baino gehiago. "Euskarazko produktuak gehienbat gaztetxoaren artean saltzen dira", baie-ztatu du. Helduen artean, ordea, gau-zak aldatzen dira. Bere garaian, hezi-keta erdaraz jaso izanak zerikusia du. "Zaila egiten da euskaraz irakurtzera ohitzea", adierazi du liburu dendako saltzaileak.

Ohitura horiek aldatzeaz gain, gaur egun, liburu denda askok kultur ekoiz-pen horren salmentarekin lotuta, beste

erronka nagusi bat dute; merkatal gune handiei aurre egin beharra. Herrietako denda txikiek salmenta kopuru handiak dituzten hedadura handiko merkatalgu-neekin borrokatu behar dute. Gehienetan txikien kaltetan.

Saltoki handiak aurrez aurre

"Askok merkatal gune handietara jotzen dute lehenik eta gero, herriko liburu dendetara", azaldu du Azaldegik. Bere ustean, egoera ez da txantxetakoa. Euskal produktuak herritarren eskura jartzeko oinarritzeko salmenta guneak arriskuan egon daitezke. "Eta dendak ixten badira, herriko giroa galduko da", gogoratu du Beatrizek.

Katalogoa sarean ikusgai

Katalogoko produktuei buruzko xehetasun gehiago www.katalogoa.org webgune elektronikoan aurki daitezke.

musika
filmak
aldizkariak
liburuak
informatika
jostailu
eta jokoak



2006-2007
euskarazko
produktuen
katalogoa

www.katalogoa.org

Santo Tomas eguna ospatzeko **deialdia**

**Noaua!k herritar guztiak
gonbidatu nahi ditu**



Herritarren sargardoa
dastatzeko eta babarrunak
ikusteko aukera izango da.
Aurten ere lehiaketa
bikaina izango dugu.



Abenduaren
igandegoizez 17an



XXXV Usurbilgo Sagardo Eguna



Noaua!!
Kultur elkartea